



## **AIARAKO UDALAK 2023ko URTARRILAREN 19an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

### **PRESIDENTEA (Jardunekoa)**

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

### **ZINEGOTZIAK**

Montse Angulo Solloa andrea

Susana Martín Benavides andrea

José Antonio Bartolomé Pesquera  
jauna

Itxaso Gorbeña Allende andrea

Unai Campo Arenaza jauna

Karmele Población Martínez andrea

Marian Mendiguren Mendibil andrea

Koldo Mendioroz Goldaraz jauna

Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita hiruko urtarrilaren hemeretziaren, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

### **EZ DIRA BERTARATU**

Gentza Alamillo Udaeta jauna

### **IDAZKARIA**

Naiara Lazpita Marcos andrea

Jarduneko alkate jaunak ongiatorria egin die guztiei, eta, gai-zerrendan jasotako puntuekin hasi baino lehen, udalbatzaren partez doluminak ematen dizkio Gentza Alamillo Udaeta jaunari eta bere familia osoari, haren amaren heriotzagatik. Beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

#### **1.- Onestea, bidezkoa bada, 2022ko abenduaren 22an egindako ohiko osoko bilkurako akta.**

Ez da horri buruzko iruzkinik egin, beraz, 2022ko abenduaren 22an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta bozkatu da, eta bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 9k) aho batez onetsi dute.

#### **2.- Onestea, bidezkoa bada, Arabako Pentsionistak Lanean Elkarateak aurkeztutako mozioa, Aiaraldetik Galdakaoko Ospitalera joateko zuzeneko autobusaren alde.**



Udalbatzari puntu honi dagokion 2023ko urtarrilaren 10eko Gizarte eta Osasun, Berdintasun, Immigrazio eta Adinekoen Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 9ek).

**IKUSI DA.-** Arabako Pentsionistak Lanean Elkarateak aurkeztutako mozioa, Aiaraldetik Galdakakoko Ospitalera joateko zuzeneko autobusaren alde.

**IKUSI DA.-** 2023ko urtarrilaren 10ean egindako Gizarte eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Batzordearen eta Adinekoen Batzordearen aldeko irizpena.

Osoko bilkurak, aho batez (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik bertaratu diren 9k),  
**ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.--** Arabako Pentsionistak Lanean Elkarateak Aiaraldetik Galdakakoko Ospitalera joateko zuzeneko autobusaren alde aurkeztutako mozioa onestea. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

**LA ASOCIACIÓN ARABAKO PENSIONISTAK LANEAN PRESENTA LA SIGUIENTE MOCIÓN A FAVOR DEL AUTOBÚS DIRECTO DESDE LA COMARCA DE AIARA HASTA EL HOSPITAL DE GALDAKAO.**

El Hospital de Galdakao es el hospital de referencia para toda la zona de Aiaraldea y Alto Nervión. En la actualidad la Diputación de Araba no tiene establecida ninguna línea propia de autobús que vaya desde la zona de Aiaraldea hasta el Hospital de Galdakao.

Las personas usuarias y/o pacientes que necesitan trasladarse a dicho hospital tienen que utilizar la línea de Bizkaibus que sirve a Orduña o, a partir de Laudio, la que sirve a Orozko. El trayecto de ambas líneas pasa por todos los pueblos y barrios vizcaínos que atraviesa, incluidos Arrigorriaga, Basauri y Galdakao, con varias paradas en cada localidad. El recorrido y el número de paradas que efectúan hacen que un usuario de Aiaraldea tenga que invertir mucho tiempo desde su salida hasta la llegada al hospital. Un viaje largo y pesado.

Esto provoca que muchos pacientes acudan al Hospital de Galdakao por medios propios. Son varias las consecuencias negativas que esto provoca: aumento del tráfico, más peligro de accidentes, dificultades para aparcar en el hospital, etc. Sin olvidar el efecto negativo en relación al consumo de energía y al cambio climático.

Con una nueva línea, o ampliación del servicio actual, que salga de Urduña haciendo paradas en Amurrio, Luiaondo y Laudio, y que desde Laudio vaya directo hasta el Hospital, se mejoraría el servicio para la comarca de Aiara y se evitarían gran parte de los efectos negativos que el limitado servicio actual provoca y, a la vez, pudiendo acortar el viaje en más de treinta minutos en la ida y otro tanto en la vuelta.



Esta línea o ampliación debería ser complementaria a la que ofrece Bizkaibus actualmente desde Urduña y tener salida y llegada en este pueblo; no hay que olvidar que, aunque pertenecientes al municipio de Amurrio, hay pueblos y barrios alaveses más cercanos a Urduña que a Amurrio, como son los pertenecientes al valle de Arrastaria: Aloria, Artomaña, Delika y Tertanga.

## MOCIÓN

Teniendo en cuenta todo lo anterior, y con el objetivo de mejorar el servicio, el Ayuntamiento de Ayala insta a la Diputación de Araba para que efectúe las gestiones pertinentes con el fin de que las/os vecinas/os de Aiaraldea dispongan de un servicio de ida y vuelta directo (complementario al servicio actual que da Bizkaibus) entre la Comarca de Aiara y el Hospital de Galdakao.

Ayala, 15 de diciembre de 2022  
ARABAKO PENTSIONISTAK LANEAN  
G01496868

### **ARABAKO PENTSIONISTAK LANEAN ELKARTEAK HONAKO MOZIO HAU AURKEZTEN DU AIARALDETIK GALDAKAKO OSPITALERA JOATEKO ZUZENEKO AUTOBUSAREN ALDE.**

Galdakaoko Ospitalera erreferentziatzko ospitalea da Aiaraldearentzat. Gaur egun, Arabako Foru Aldundiak ez du Aiaraldetik Galdakaoko Ospitalera doan autobus-linea propiorik.

Ospitale horretara joan behar duten erabiltzaileek edota pazienteek Urduñara doan Bizkaibuseko linea erabili behar dute, edo, Laudiotik Aurrera, Orozkora doana. Bi linea horien ibilbidea Aiaraldea eta Galdakao arteko Bizkaiko herri eta auzo askotatik igarotzen da, Arrigorriaga, Basauri eta Galdakao barne, herri bakoitzean hainbat geldialdi eginez. Ibilbidearen eta egin beharreko geralekuen kopuruaren ondorioz, Aiaraldeko erabiltzaile batek denbora asko inbertitu behar du ateratzen denetik ospitalera iritsi arte. Bidaia luze eta gogaikarria.

Horren ondorioz, paziente asko Galdakaoko Ospitalera bere baliabideak erabiliz joaten da. Hainbat dira horrek eragiten dituen ondorio negatiboak: trafikoa handitzea, istripuak izateko arrisku handiagoa, ospitalean aparkatzeko zailtasunak, etab. Ahaztu gabe, halaber, energia-kontsumoan eta klima-aldaketan eragin negatiboa duela.

Linea berri batekin, edo egungo zerbitzua handitzearekin, Urduñatik Amurrión, Luiaondon eta Laudion geldialdiak eginez irtengo dena, eta Laudiotik Ospitalera zuzenean joango dena, Aiaralderako zerbitzua hobetuko litzateke eta egungo zerbitzu mugatuak eragiten dituen ondorio kaltegarrien zati handi bat saihestuko litzateke, eta, aldi berean, bidaia hogeita hamar minutu baino gehiago laburtu ahal izango litzateke joanekoan eta beste horrenbeste itzuleran.

Linea berri horrek, edo egungoaren hobekuntzak, Bizkaibusek gaur egun Urduñatik eskaintzen duenaren osagarria izan beharko luke, eta herri horretan irteera esta helmuga izan beharko luke; ez da ahaztu behar, Amurrioko udalerrikoak izan arren, Arabako herri eta auzoak



Urduñatik hurbilago daudela Amurriotik baino, Arrastariako haranekoak diren bezala: Aloria, Artomaña, Delika eta Tertanga.

## MOZIOA

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta zerbitzua hobetzeko asmoz, Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio egin beharreko kudeaketak egin ditzala Aiarako bizilagunek joan-etorriko zerbitzu zuzena izan dezaten (Bizkaibusek ematen duen egungo zerbitzuaren osagarria) Aiaraldearen eta Galdakaoko Ospitalearen artean.

Aiara, 2022ko abenduaren 15an  
ARABAKO PENTSIONISTAK LANEAN  
G01496868”.

**BIGARRENA.**-- Erabakia Arabako Foru Aldundiari jakinaraztea, ezagut dezan eta dagokion ondorioak izan ditzan.

**3.- Adjudikatzea, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiaren esparru-akordioaren adjudikazioan oinarrituta, 2023rako energia elektrikoaren hornikuntzari buruzkoa.**

Udalbatzari puntu honi dagokion 2023ko urtarrilaren 10eko Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Karmele Población Martínez andreak (EH BILDU) hartu du hitza adierazteko bere taldea Kontratazio Zentralaren aurka dagoela, oso zaila delako enpresa txikiek aukera izatea horrelako kontratu-motetara sartzeko. Duela asko adierazi genuen, eta, horren ondorioz, dio, aurka bozkatuko dute.

Ez da iruzkinik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 6 (5 EAJ-PNV eta 1 AIARA BATUZ)  
AURKAKO BOTOAK: 3 EH BILDU

Hori dela bide,

**IKUSI DA.**- Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 25eko 641/2022 Erabakiaren bidez, Endesa Energía SAU enpresari adjudikatu zitzaion energia elektriko hornitzeko esparru-akordioa, eta kontratua betetzeko epea gauzatzen denetik 2023ko abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

**AINZAT HARTU DA.**- 2021eko urriaren 21eko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez Aiarako Udala Arabako Kontratazio Zentral Foralak izapidetuko duen energia elektrikoaren hornidurari buruzko esparru-akordioari atxikitzea onetsi zela.



**AINTZAT HARTU DA.-** Aiarako Udalari dagokio adjudikatzea Arabako Kontratazio Zentral foralake adjudikatutako energia elektrikoaren hornidurari buruzko esparru-akordioan oinarritutako kontratua edo akordiotik eratorritako kontratua.

**AINTZAT HARTU DA.-** 2023ko urtarrilaren 10eko Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumen Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 221. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, esparru-akordioan oinarritutako kontratua ENDESA ENERGÍA SAU enpresari adjudikatu zaio, Arabako Foru Aldundiak adjudikatutako Energia Elektrikoaren Hornidurarako (2023. urtea) esparru-akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzen arabera.

Udalbatzak aho batez honako **ERABAKIA** hartu du:

**LEHENENGOA.--** 2023. urterako energia elektrikoaren hornidurarako esparru-akordioan oinarritutako kontratua ENDESA ENERGÍA SAU enpresari adjudikatzea (IFK A-81.948.077), Foru Gobernu Kontseiluaren 2022ko urriaren 25eko 641/2022 Erabakiaren bidez adjudikatutako esparru-akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

**BIGARRENA.--** Honako hauek dira energia elektrikoari dagokion prezioa zehazteko aplikatu beharreko koefizienteak:

	Tarifa BT 2.0 TD	Tarifa BT 3.0 TD	Tarifa AT 6.1 TD	Tarifa AT 6.2 TD
A_p1	0,093004	0,062270	0,046349	0,030332
M_p1 (€/kWh)	1,182869	1,177079	1,076594	1,068931
A_p2	0,045423	0,051251	0,039254	0,026587
M_p2 (€/kWh)	1,180288	1,192861	1,079809	1,069556
A_p3	0,021817	0,035829	0,028603	0,021380
M_p3 (€/kWh)	1,200477	1,169190	1,068468	1,060319
A_p4		0,028068	0,023303	0,018896
M_p4 (€/kWh)		1,163575	1,059348	1,058385
A_p5		0,021187	0,017135	0,015597
M_p5 (€/kWh)		1,150426	1,037889	1,042863
A_p6		0,020939	0,017863	0,016145
M_p6 (€/kWh)		1,206909	1,061437	1,084926

Era berean, adjudikatuzaileak esparru-akordioaren lizitazioaren prozesuan eskaintako gainerako baldintzak aplikatuko dira.

**HIRUGARRENA.-** Oinarritutako kontratua betetzeko iraupena oinarritutako kontratuaren adjudikazioa egiten den unean gauzatzen denetik 2023ko abenduaren 31ra arteko izango da.

**Laugarrena.--** Erabakia enpresa adjudikaziodunari jakinaraztea”.

**4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Sociedad Vasca de Informática del Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SAREN (EJIE) arteko**



**lankidetza-hitzarmena, KZGUNEA zentroen irekiera, erabilera eta aprobetxamendua arautzeko, KZ ciudadan@ programaren esparruan.**

Udalbatzari puntu honi dagokion 2023ko urtarrilaren 10eko Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 9ek).

Hori dela bide,

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta Sociedad Vasca de Informática del Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SAREN (EJIE) arteko lankidetza-hitzarmenaren proposamena, KZGUNEA zentroen irekiera, erabilera eta aprobetxamendua arautzeko, KZ ciudadan@ programaren esparruan.

**IKUSI DA.-** 2023ko urtarrilaren 10eko Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumen Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

Osoko bilkurak, aho batez (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik bertaratu diren 9k),  
**ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.--** Aiarako Udalaren eta Sociedad Vasca de Informática del Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SAREN (EJIE) arteko lankidetza-hitzarmena onestea, KZGUNEA zentroen irekiera, erabilera eta aprobetxamendua arautzeko, KZ ciudadan@ programaren esparruan.

*AIARAKO UDALAREN ETA SOCIEDAD VASCA DE INFORMÁTICA DEL GOBIERNO VASCO – EUSKO JAURLARITZAREN INFORMATIKA ELKARTEA SAREN (EJIE) ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, KZGUNEA ZENTROEN IREKIERA, ERABILERA ETA APROBETXAMENDUA ARAUTZEKO, KZ CIUDADAN@ PROGRAMAREN ESPARRUAN.*

*Ayala/Aiara, sinadura elektronikoaren datan*

*HAUEK BILDU DIRA*

*Alde batetik, GENTZA ALAMILLO UDAETA alkate jauna, Aiarako Udalaren ordezkari gisa.*

*Bestetik, ASIER SÁEZ DE VICUÑA ORTUETA jauna, EJIE Sako zuzendari nagusia, enpresa hori ordezkatur.*

*HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:*

*1.- 2001eko apirilaren 10ean Gobernu-kontseiluak “Konekta Zaitetz Ciudadan@” programa “Euskadi Informazioaren Gizartean” planean sartzea onetsi zuela. Akordio horren bidez, “Konekta Zaitetz Ciudadan@” programaren kudeaketa eta jarraipena egitea Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien Zuzendaritzaren esku uzten da, eta Eusko Jaurlaritzaren*



*Informatika Elkartea SARI (EJIE) programa burutzeko beharrezkoak diren adina zeregin informatiko esleitzeko ahalmena ematen dio.*

*2.- KZguneen euskal sare publiko hori Eusko Jaurlaritzako Informazio eta Komunikazio Teknologien Zuzendaritza beraren mende dago oraindik ere, eta zuzendaritza horrek urtero "Konekta Zaitetz" programa, aurrerantzean KZgunea, garatzea Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea SAREN (EJIE) esku uzten du, eta udalekin zentroak irekitzeko eta kudeatzeko beharrezko akordioak formalizatzea.*

*3.- Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) 2022ko azaroaren 30ean informazioaren gizartera sartu ahal izateko zentroen sare bat ("Konekta Zaitetz Ciudadan@" programa) martxan jartzea ahalbidetuko zuen akordioa sinatu dutela lankidetzaren marko bat ezartzeko.*

*4.- Gaur egun, KZgunea proiektua Euskadi Eraldaketa Digitalerako Estrategia 2025 – EEDE2025- esparruan kokatzen dela, teknologia pertsonen zerbitzura jarri eta hurbiltzeko, gizarte digital ireki, demokratiko eta iraunkor bat lortzeko funtsezko pieza delarik. Modu estrategikoan, integralean eta diziplina anitzeko, IKTen abantailak aprobetxatu nahi dira gizarteorientazioa duten bi helburu lortzeko: lehiakortasuna hobetzea eta herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea. Ildo horretan, KZgunea eta haren ezarpen zabala helburu horiek lortzeko ekintzak ezartzea ahalbidetzen duen aliatu handia bilakatzen da.*

*5.- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza ados dago Ayala/Aiarako Udalaren "Konekta Zaitetz Ciudadan@" programari atxikitzearekin. Programa hori 1. eranskinean adierazitako helbidean dagoen espazioan garatuko da, erabilera eta zerbitzu publikorako bideratua.*

*6.- 2018ko uztailaren 3an EAeko KZgune zentroetan erabiltzaileei arreta ematen diharduten langileen aurkako jarrera oldarkorrak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko plan bat onartu zuen EJIEk. Ayala/Aiarako Udalak kontuan izan nahi du plan hori, eta zerbitzu hori eskaintzen den espazioaren erabilera-baldintzak berritu, eguneratu eta hitzarmen bakarrean jaso behar dira.*

*7.- Tokiko araudiek xedatzen dutenez, "jabari publikoko ondasunak erabiltzean, erabilera pribatibotzat joko da jabari publikoaren zati bat okupatzea, gainerako interesdunek erabiltzea mugatu edo galarazten duelarik". Orobat zehazten du jabari publikoko ondasunen erabilera administrazio-emakidari lotuta egongo dela. Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeak emakiden esleipen erregimena arautzen du 93. eta 94. artikuluetan. Bertan jasotzen denez, jabari publikoaren emakidak lehia aske bidez emango badira ere, zuzenean ere eman ahalko dira, lege beraren 137.4. artikuluan aurreikusitako egoeretan, eta artikulua horretako a) atalak dioenez, hartzailea beste administrazio publiko bat bada, zuzenean esleitzeko aukera egongo da.*

*Hori kontuan izanik, bi aldeei komeni zaie lankidetzaren hitzarmen hau sinatzea, horrek EJIEri 1. eranskinean adierazitako helbidean adierazitako gela bat zuzenean lagatzeko bide emango baitu, herri administrazioen arteko lankidetzaren arduratsua lortzea helburu, eta, horrenbestez, egoki da Ayala/Aiarako Udalak KZgunea ireki, erabili eta aprobetxatzen laguntzea, bai eta KZgunean erabiltzaileei arreta ematen diharduten langileen aurkako jarrera oldarkorrak*



*prebenitzeko eta horiei aurre egiteko plana kontuan hartzea ere, honako klausula hauei jarraikiz:*

## **KLAUSULAK**

### **LEHENENGOA. XEDEA**

*Hitzarmen honen helburua EJI Eren eta Ayala/Aiarako Udalaren arteko lankidetzaren harremanak ezartzea da, 1. eranskinean adierazitako helbidean kokatutako KZgunea ireki, erabili eta aprobetxatzeko eta KZguneak eskaintzen dituen prestakuntza-programak eta gainerako zerbitzuak emateko eta, horrenbestez, espazio horretan dagoen gelaren jabari publikoko emakida arautzea.*

### **BIGARRENA. LORTU NAHI DIREN HELBURU KOMUNAK**

*Hitzarmen honetako aldeek adostu duten lankidetzak helburu partikular –zentro bakoitzarenak– eta orokor –KZgunea programarenak– hauek izango ditu:*

- KZgunearen Zerbitzuen Kartan zehaztutakoei jarraikiz zabaltzea KZgunea zentroa. Zentroaren egutegia KZgune guztientzako egindako egutegi orokorrera egokituko da.*
- Udalerriko herritarrei teknologia berrien inguruko prestakuntza libre, unibertsal eta egituratua ematea. Antolakuntza, partaideak hautatzea eta baliabideen eskuragarritasuna zentroko hezitzaileen ardurara izango dira.*
- Zerbitzuak ematen direla bermatzea, bai KZgunea programakoak bai udalak zentro horretan ematen dituenak zein hitzarmeneko aldeekin lankidetzan diharduten erakundeek ematen dituztenak, hala, zentroaren kalitateirudia indartzeko.*
- Ahalik eta jende gehienengana heltzea, bai udalerrin mailan, bai oro har, hiru lurralde historikoetan.*
- Bi aldeen interesekoa den eta kostu ekonomikorik ez dakarren beste edozein, gastu hori onartzen dutenean izan ezik.*

### **HIRUGARRENA. ZERBITZUAK EMATEKO BALDINTZAK**

- Lan-egutegia: KZguneak lan-egutegi estandar bat eratuko du bere zentro guztientzat, aurreko urteko azken hilabetean egingo dena eta Udalari bidaliko zaiona. Lan-egutegi horrek beti Gobernuak onartutako estatu-, autonomia erkidego-, probintzia- eta udal-mailako jaiegunak hartuko ditu kontuan. Gainera, oro har, abuztuan jai hartuko dute KZguneek. Lan-egutegia udalei jakinaraziko zaie Kudeaketa Zentroak onartu bezain laster. Edozein kasutan ere, lan-egutegi hori KZgunea kokatuta dagoen espazioa irekitzeko egun eta ordutegietara egokitu beharko da.*





- *Lokala irekitzeko orduak: ahal denean, hezitzaileei eta/edo KZguneari loturiko programetako begiraleei KZguneko prestakuntza- zerbitzuak eta kanpoko prestakuntza emateko beharrezkoak diren ordutegietan zentroen irekiera ahalik eta gehien erraztuko zaie.*
- *Lankidetzaren promozioan: ahal den heinean, Udalak KZgunean eskaintzen diren zerbitzuen promozioan lagunduko du. Lankidetzaren horrek kostua ekar dezake udalarentzat honelako ekintzak direla eta: gutunak inprimatzea, KZguneak helarazitako propaganda banatzea, zentroa promozionatzeko ekitaldiak antolatzea, etab.*

## **LAUGARRENA. ZERBITZUEN ZERRENDAA**

### KZguneetako zerbitzu estandarrak

*Indarrean dagoen Zerbitzuen Kartan sartuta daudenak.*

### KZguneetako zerbitzu ez-estandarrak

*Udalak KZguneari aipatu berri diren zerbitzu estandarretan sartzen ez den zerbitzuren bat emateko eskatuko balio, zerbitzu horiek honela arautuko dira:*

- *KZgunea zentroa dagoen espazioa utzi ahal izango da KZguneko hezitzaileen lan orduetatik kanpo, eskabide formal bat aurkezten denean.*
- *KZgunearena ez den prestakuntza emateko, beharrezkoak diren baliabide teknologikoak egokitu behar badira, KZguneari dagokio egokitzapen hori eskatzea, kudeatzea eta ezartzea, aldaketa horiek aztertu eta bideragarriak direla erabaki eta gero.*
- *Udalak, beharra izanez gero, zentroa KZgunearen ordutegitik kanpo zabaldu ahal izango du nabigazio-zerbitzuak eskaintzeko. Zarauzko Udalak KZguneari zentroa zein ordutegitan irekiko duen jakinaraziko dio, zerbitzu horren publikitate egokia egin dadin.*

## **BOSGARRENA. EJIE-REN BETEBEHARRAK**

*EJIEk honako betebeharrak hartzen ditu bere gain:*

- *Zentroen sarean kokatuta dagoen KZgunea zentroa kudeatzea, KZC@ kudeaketazentroan ezarritako irizpide estrategikoei jarraituz. Zentro horiek beharrezko baliabide material eta teknologikoak zein giza baliabideak izango dituzte ezarritako helburuak erdiesteko. Udalerri ezberdinetako KZguneen funtzionamendua homogenea izango da, eta Zerbitzuen Kartan zehaztutakoak betetzea izango du helburu.*
- *KZgunea zentroa beharrezkoak diren baliabide teknologiko eta didaktikoekin zein giza baliabideekin hornitzea, eta horietatik eratorritako kostuak bere gain hartzea ezarritako helburuak betetzeko. Baliabide hauek dira azpimarragarrienak:*



- *Azpiegitura teknikoak (PCak, komunikazio-lineak...): erostea eta mantentzea, bai horiek konpontzea eta ordezkatzera ere. 1. eranskinean adierazten da instalatutako ekipo-kopurua.*
- *KZC@ programaren xede diren teknologiak sustatzeko zerbitzuen katalogoa osatzen duten prestakuntza- eta zabalakunde-materialak.*
- *Zerbitzuen katalogoan ageri diren jarduerak egitea.*
- *Zentroaren kudeaketa egiteko beharrezko informazio-sistema (erabilera eta jarduerari dagozkien estatistikak etab.).*
- *KZguneko Kudeaketa Zentroak laguntza emango du lan hauetan: erabiltzaileekiko arreta, mantentzelanak, euskarriak, etab.*
- *Hezitzailearen presentziak bermatuko du KZgunek eskaintzen dituen zerbitzuak behar bezala ematen direla.*
- *KZgunea proiektuari lotutako langileek ez dute inolako kontratu-konpromisorik ez eta lan-loturarik izango Ayala/Aiarako Udalarekin. KZgunea zentroko hezitzaileek ez dute inola ere dagokion toki-administrazioarekin lanharremanik edo harreman profesionalik izango.*
- *Udalarekin elkarlanean aritzea zentroan egiten diren jardueren berri herritarren artean zabaltzeko, udalerriko ahalik eta pertsona gehienek parte hartzea lortze aldera. EJIek beharrezko baliabideak (materialak, pertsonalak eta ekonomikoak) erabili eta bere gain hartuko ditu, oro har hiru lurralde historikoetan aplikatu beharreko dibulgazio-ekintzetan.*
- *Zentroaren jarduerak beste erakunde-ekimen batzuekin koordinatzea horien gehieneko sinergia eta errentagarritasuna lortzeko, udalerriko herritarren mesedetan.*
- *Udalari zentroaren eguneroko funtzionamenduaren eta egindako hobekuntza-ekintzen inguruko informazioa ematea, inbertitutako baliabideen eta lortutako emaitzen arteko oreka mantentze aldera.*
- *Udal eta gizarte-etxeetan ematen den zerbitzuaren garapenean sortzen diren gorabehera gatazkatsu eta gizalegearen aurkako jokabide oro koordinatzaileari jakinaraztea.*
- *Lokalak eraikitzeko, altzariz janzteko eta antolatzeke jarraibideak eta irudi korporatiboa ematea.*
- *Aipatutako zentroa KZgunea zentroen sare orokorrean sartzera, martxan jarriko diren jarduera komunei etekina atera diezaien.*

#### **SEIGARRENA. AYALA/AIARAKO UDALAREN BETEBEHARRAK**

*Ayala/Aiarako Udalako honako betebeharrak hauek hartuko ditu bere gain:*



- *1. eranskinean adierazitako lekuan kokatutako lokal bat EJIEn esku jartzea jabari publikoko emakida bidez eta kosturik gabe, KZgunea programa gara dadin. Lokal horri sarbide-baldintza egokiak eman beharko dizkie Udalak KZgunearen identifikazio eta errotulazio egokia beti bermatuko delarik. Lokala atontzea, altzariei, pinturari, kableei eta abarrei dagokienez.*
- *Erantzukizun zibila eta lokalen mantentze-lan desegokiek KZgunearen azpiegitura-ekipoei eragindako kalteak bere gain hartzea, ondorioz, beharrezkoak diren aseguruak kontratatzea eta udal-titulartasuneko lokal eta instalazioei dagozkien segurtasun-arau eta neurriak ezartzea.*
- *Lokala baldintza egokietan mantentzea, garbitasunari, urari, energia elektrikoari eta abarrei dagokienez, eta horietatik eratorritako gastuak bere gain hartzea.*
- *Udalaren ahalmenen neurrian, 1. eranskinean adierazten den helbidean dagoen KZgunean ematen den zerbitzuaren erabilera ona sustatu eta bultzatzea, betiere EAEko KZguneetako herritarren arretako langileekiko jarrera bortitzen aurkako prebentzio- eta jarduera-plana kontuan hartuta.*
- *Zentroko egunerokoan gerta litezkeen gatazka-egoerak bideratzeko harremanetarako baliabide egokiak ematea.*
- *Zentroaren eta bertan garatzen diren jardueren berri ematea Udalak helburu horretarako dituen baliabideak erabiliz (Udal webgunea, mailing-ak...), KZgunea programako Komunikazio arduradunarekin koordinatuta.*
- *Aipatutako hedapen hori egiteko beharrezkoak diren baliabide materialak, pertsonalak zein ekonomikoak bere gain hartzea. Zentroak udalerraren esparruan garatzen dituen jardueren zabalkundeekintzetarako soilik erabiliko ditu Ayala/Aiarako Udalak bide horiek.*

## ZAZPIGARRENA. KONTROLA ETA JARRAIPENA

*Hitzarmen honen bidez adosten diren zerbitzuen funtzionamendu egokia zaindu beharko dute bi alderdiek eta, bi aldeetako edozeinek eskatuta, bilerak egin ahal izango dira egokitzat jotzen denean. Alde bakoitzak esleituko dituen langileak:*

- *EJIEk KZguneko Kudeaketa Zentroari loturiko langileak esleituko ditu.*
- *Ayala/Aiarako Udalaren aldetik:*
  - *Eusko Jaurlaritzako arduradun instituzionalekin harremanetan egongo den izaera instituzionaleko bitarteko bat.*
  - *Eta izaera teknikoko bitartekariak, KZguneko Kudeaketa Zentroan dauden arduradunekin harremana mantentzen dutenak.*



### **ZORTZIGARRENA. ERREGIMEN EKONOMIKOA**

*Lankidetzeta-hitzarmen honek ez du alde sinatzaileen artean betebeharrak ekonomikorik sortzen.*

### **BEDERATZIGARRENA. IRAUPENA ETA ONDORIOAK**

*Hitzarmenak lau urteko indarraldia izango du, sinatzen den egunetik kontatuta; hala ere, beste lau urteko luzapena izan dezake, betiere ekitaldi horretako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan kreditu egokia eta nahikoa badago.*

### **HAMARGARRENA. HITZARMENA AZKENTZEKO ARRAZOIAK**

*Hitzarmen hau bi alderdiek hala adosten badute edo alderdietako batek bere kabuz erabakitzen badu baliogabetu ahal izango da beste aldeak bere betebeharrak betetzen ez baditu edo egokitzat jotzen duen beste edozein arrazoi gertatzen bada, betiere kontrako alderdiari gutxienez hiru hilabete lehenago jakinarazten badio. Krediturik ez egotearen edo hori murriztearen ondorioz hitzarmena ez luzatzea erabakitzen bada eta arrazoi horregatik azkentzen bada hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu orokorrak argitaratu eta gero egingo da jakinarazpena.*

*Hitzarmen honetako helburuak erdiesten badira, gertaera hori hitzarmen hau azkentzeko arrazoiak izan daiteke eta, Kalitate Planean ezarritako dagoen EAEko hiru lurraldeetan ahalik eta jende gehienengana heltzeko helburu orokorra ardatz hartuta, ekipoak eta langileak KZgunea proiektuak bere zerbitzuak eman behar dituen beste udalerriri batera eraman ahal izango dira.*

*Hitzarmena azkentzeko arrazoiak edozein dela ere, ez da ondare-ondoriorik egongo eta aldeetako bakoitzak proiektuari emandako baliabide eta ondasunen jabetza eta titulartasuna mantenduko du zentroa ixtea adostu ondoren.*

### **HAMAİKAGARRENA. ERREGIMEN JURIDIKOA**

*Hitzarmen hau izaera administratibokoa da, Sektore Publikoaren Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan lankidetzeta-hitzarmenatarako bereziki xedatutakoarekin bat.*

*Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6. artikuluan aurreikusitakoekin bat, hitzarmen hau Lege horren aplikazio-eremutik kanpo dago.*

### **HAMABIGARRENA. ARAZOAK KONPONTZEA**

*Hitzarmen hau sinatuz, alderdiek hitzarmena betetzean sor daitezkeen gorabeherak elkarren arteko adostasunez konpontzeko konpromisoa hartzen dute.*

### **HAMAHIRUGARRENA. INFORMAZIOAREN BABESA ETA SEGURTASUNA**



*Hitzarmen hau garatzean Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak galdatzen dituen segurtasun neurriak hartuko dira, edo hori ordezkatzeko duenean eta/edo hori garatzeko araudi osagarrian ezarritakoak.*

#### **HAMALAU GARRENA. ALDAKETAK**

*Hitzarmen honetan zehaztutako exekuzio-baldintzetan eragina duten inguruabarrak aldatu egiten badira, baldintza horiek aldatu egin ahalko dira bi aldeek sinatutako eranskin baten bidez; horretan idatzitako puntuek jatorrizko testukoak ordezkatzeko dituzte eta jatorrizko hitzarmenera gehituko dira, gainerako klausulei inolako aldaketarik eragin gabe.*

*Programara bideratutako kredituan edo, efizientzia dela eta, kreditu hori KZguneen artean banatzeko moduan aldaketarik gertatzen bada, lanpostu-kopuruak, hezitzaile-kopuruak eta dedikazioak eta KZgunearen ordutegiak aldaketak jasan ditzakete proiektua indarrean dagoen artean. Alderdi horietako edozein aldaketak ez du beste hitzarmen bat sinatzea edo hitzarmen hau aldatzea eskatuko. Udalerrian zentro berri bat zabaltzen bada indarrean dagoen hitzarmeneko eranskina aldatu beharko da, gorago adierazi bezala, besterik ez.*

**ASIER SÁEZ DE VICUÑA ORTUETA**

Izenpetua:

**GENTZA ALAMILLO UDAETA**

Izenpetua:

#### **1. ERANKSINA**

*Dokumentu honetan jasota dauden zentroari buruzko datuak, hitzarmen hau sinatzen den unean.*

#### **UDAL ETA GIZARTE-ETXEAREN KOKAPENA**

<i>KZ zentroa</i>	<i>Kalea/Zk.</i>	<i>P.K.</i>	<i>Tel.</i>
<i>Ayala/Aiara</i>	<i>Elezpide auzoa, 2 (Eduardo Respaldiza Enparantza)</i>	<i>01476</i>	<i>945</i>

#### **LANPOSTUAK**

*Gaur egun zentroak honenbeste lanerako leku dituzte, eta lehentasunez prestakuntza-jarduerak garatzeko erabiliko dira:*



KZ zentroa	Lanpostu kopurua
Ayala/Aiara	6

**BIGARRENA.**-- Alkate-udalburuari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

**HIRUGARRENA.**- Erabakia Sociedad Vasca de Informática del Gobierno Vasco – Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SARI (EJIE) jakinaraztea, dagokion hitzarmena sinatzeko”.

## **5.- Alkatetzaren dekretuen berri ematea.**

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2022/801 eta 2023/17 bitarteko Alkatetzaren Dekretuak, bi horiek barne. Horien guztien edukia, laburki, honako hau da:

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/801.- FM.B.O.- Ibilgailuen Udal Zergan salbuespena ematea, desgaitasuna egiaztatzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/802.- I.T.A. SL.- 2022ko TMIZerako ordaindutakoaren zati bat itzultzea, autoari behin betiko baja emateagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/803.- Administrazio Batzarren parte-hartzea udaleko 2022ko aurrekontuan.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/804.- ZENER COMUNICACIONES SA E/R A.E.A.- Luiaondoko etxebizitzan instalazio fotovoltaikoa egiteko udal obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA -2022/805.- M.G.O. eta V.J.A. – Obra-lizentziaren iraugitzearen espedientea ondorerik gabe uzteko eta Menagaraiko obran segurtasun-neurriak errekeritzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/806.- Alkatearen eta funtzionarioen nominen ordainsari likidoa onestea, 2022ko abendua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/807.- Etxaurren Ikastolako guraso-elkartea. Talde psikopedagogikoaren eta bi urtekoen gelako laguntzailearen nominak ordaintzea, 2022ko abenduko ordainsari gehigarria.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/808.- Murgako Administrazio Batzarra.- Murgako udaletxearen inguruan obra txikiak egiteko udal obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/809.-MD.G.M.-- Maroñoko etxebizitzaren teilatua konpontzeko udal obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/810.- Eskolako garraio-zerbitzua baimentzeari buruzko 2022/688 Alkatetzaren Dekretuan dagoen akats materiala zuzentzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/811.- G.M.DJ.- Eskatutako obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/812.- J.B. A.A.- Menagaraiko etxebizitzaren teilatua birgaitzeko obraren azken lizentzia ematea eta obra horren hondakinen kudekatarako azken



fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/813.- Egikaritzapen Materialeko eta Segurtasun eta Osasunaren Koordinazioko Zuzendaritza – Patxita Etxea

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/814.- Elkarkidetza Pentsioak - 2022ko abenduko faktura-likidazioa.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/815.- Alday Fundazioa. EALZ kudeatzen eratorritako gastuak ordaintzeko, 2022ko urria.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/816.- 2023-2024-2025- 2026rako Gaztelekuaren kudeaketa-zerbitzuaren kontratu ireki sinplifikatua.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/817.- Alkateak 2/2022 zenbakiko kredituaren transferentzia egiteko espedientea onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/818.-I.G.A.-- Arespalditzako etxebizitzan plaka fotovoltaikoak instalatzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/819 I.F.M. Aldi baterako lan-kontratua sinatzea lanaldi osoan administrari laguntzaile gisa aritzeko (2022/2023ko EEP).

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/820.- M.V.D. Aldi baterako lan-kontratua sinatzea lanaldi osoan peoi gisa aritzeko (2022/2023ko EEP).

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/821.-GM.C.V.- Aldi baterako lan-kontratua sinatzea lanaldi osoan peoi gisa aritzeko (2022/2023ko EEP).

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/822.- Udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantzako jardueretara joateko laguntzak emateko ebazpena, 2022. urtea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/823.- Etxaurren Ikastolako kanpoko arotzeria ordeztzeko oinarritzeko proiektua eta obra egitea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/824.- Nafarroa Oinez-i zuzeneko dirulaguntza ematea, 2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/825.- Complementos y Soluciones Urbanas. 2022ko EJZren likidazioaren erreklamazioa baiestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/826.- Araba Euskaraz-i zuzeneko dirulaguntza ematea, 2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/827. – EHIGE – Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematea, 2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/828.- Herri Urrats-i zuzeneko dirulaguntza ematea, 2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/829.- F.M.G.G. - Biztanleen erroldan ofiziosko baja ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/830.- Alkatearen eta langileen ordainsarien hileroko txostena onestea, 2022ko abendua.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/831.- Udalerriko alderdi politikoei ekarpen ekonomikoa egitea, 2022ko abendua.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/832. – Udalkideei ekarpen ekonomikoa egitea, 2022ko

I.F.K. C.I.F. P0101100F



abendua.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/833.- 2022/817 Alkatetzaren Dekretuaren akats materiala zuzentzea.-

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/834. – F/2022/13 erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/835.- Ingartek Consulting SL.- Mugikortasunaren diagnostikoa egiteko laguntzarako kontratua adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/836.- Autocares Sobrón SL. - 2022-2023 ikasturteko eskolako garraioaren zerbitzua baimentzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/837.- L.C.V.k 2022ko udaleko polikiroldegien kuotak ordaintzeko laguntzak emateari aurkeztutako erreklamazioaren ebazpena.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/838. – Administrazio Batzarrei dirulaguntza ematea obrak egiteko gastuengatik, 2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/839. – Administrazio Batzarrei dirulaguntza ematea obrak egiteko gastuengatik, 2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/840.- Belako Lanak SLU.- ERREPIDE NAGUSIETARAKO LOTURA ETA BIDEEN GARBIKETA MEKANIKOAREN ZERBITZUAREN KONTRATUA ALDATZEA

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/841.- Urbabil 2000 SL.- Luiaondoko Barrena Kaleko haurren jolastokia hornitu eta instalatzeko kontratua adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/1.- ED.M.L.- Olabazarreko partzela ixteko harresia konpontzeko obra egikaritzeko eperako luzapena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/2.- ED.M.L.- Olabazarreko etxebizitzan zolata eraikitzeke obra egikaritzeko emandako epearen luzapena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/3.- M.B.S.O.- Aparkatzeko txartela berritzea, iraungi delako.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/4.- 2022ko udal-aurrekontua luzatzea 2023rako.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/5.- J.M.A.V.- A-4.1. MOTAKO ARMEN TXARTELA EMATEA.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/6.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.- Informazio publikorako sarbidea.- Beotegiko Elexalde auzoko 3 zenbakian etxebizitza eraikitzeke obra-lizentziaren espedientea kontsultatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/7.- TG. Gizarte Segurantza. 2022ko azaroko kotizazioa ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/8.- Aiarako Udaleko zerbitzuetako langileen eta peoi lanpostuaren aldi baterako ordezkapenatarako lan-poltsak sortzeko deialdia arautuko duten oinarriak deitzea eta onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/9.- Ned Suministro GLP SAU- 2022/4an zehar energia-horniduraren tokiko jabari publikoaren aprobetxamenduagatik tasaren likidazioa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/10.- Nortega Energía D. SAU. 2022/4an zehar tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa.





ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/11.- Acciona Green Energy D. SLU. 2022/4an zehar energia-horniduraren tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/12.- Goiener, S.Coop. 2022/4an zehar tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/13.- Orange Espagne SAU. 2022/4an zehar tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2023/14.- Totalenergies Clientes SAU. 2022/4an zehar tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/15.- Aldi baterako lan-kontratua etetea, frogaldia ez gainditzeagatik – María Vivanco Durana-

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/16.- EEPko langileen kontratazioko abenduko ordainsariak eta aparteko ordainsaria ordaintzea, 2022/23.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2023/17.- M.V.D. 2022-23ko EEParen lan-kontratuaren likidazioko ordainsaria ordaintzea eta azken kitatzea.

## **6.- Galde-eskeak**

- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza adierazteko ezin izan zela Batzorde Soziosanitariora joan, eta ez zuela aurkeztu zuten mozioa aldatu nahi, baina eskariaren araberako taxiari dagokionez, adierazi nahi du leku batzuetan ez dagoela ondo kudeatuta, eta ospitalera joateko jarriko den autobus horrekin lotu beharko dela, bestela, jendeak agian ezin izango delako itzuli.

Jarduneko alkate Iñigo Pinedo Vadillo jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta adierazi du iaiztik Arabako Foru Aldundiak laguntzak ematen dituela barneko garraiorako, eta laguntza horietara sarbidea izateko eta barneko garraiorako zerbitzua sortu ahal izateko aukera baloratzen ari direla, Amurrion joan ahal izateko eta autobusak eta trenak lotzeko eta gero jatorrizko herrira itzuli ahal izateko; hausnartu beharko da.

- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza eskatzeko Administrazio Orokorreko teknikariarekin bilera egin dadila, Batzarrei aurkezteko.

Jarduneko alkate Iñigo Pinedo Vadillo jaunak (EAJ-PNV) erantzun du, Gentza Alamillo Udaeta jaunak jada aipatu zuenez, bilera hori egiteko hondakinen kudeaketaren txostenaren zain daudela; Eusko Jaurlaritzari errepikatu zaio txosten hori behar dela, baina oraindik ez da heldu.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza azaltzeko 5011 zenbakiko sarreran, uholde-arriskuen azterlanak egiten ari den ingen ingeniariak luzapena eskatu duela horiek aurkezteko, eta galdetu du ea nola dagoen gai hori.

Idazkariak erantzun dio abenduaren amaieran hitz egin zutela adierazteko URari dokumentuak begiratzeko eskatu ziotela, dokumentuetan egin beharreko zuzenketak jakiteko, eta



ondoren aldaketak egin behar ez izateko. Esan zuten ez zirela aldaketa asko egin behar, eta urtarrilaren erdira aldera dokumentazioa bidaliko zigtela. Gaineratu du aste hau utzi zaiela entregatzeko, bestela erreklamatzeko deituko zaiela.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza 117 zenbakiko sarreragatik galdetzeko, Murgako industrialdeko kexa bati buruzkoa, hilabete bat daramalako garbitu gabe.

Jarduneko alkate Iñigo Pinedo Vadillo jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Ingurumeneko teknikariari jakinaraziko zaiola, bera delako enpresarekin kudeatzeko arduratzen dena.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza berriro galdetzeko ea Administrazio Batzarrei banda zabaleko informazioa bidali zitzaien eta ea zerbait dakiten erantzunei buruz.

Jarduneko alkate Iñigo Pinedo Vadillo jaunak (EAJ-PNV) erantzun du uste duela Batzar bakarrak erantzun duela, Zuhatzakoak.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du berak dakienez Zuhatzakoaz gain beste batzuek erantzun dutela. Adierazi du begiratuko dutela eta otsaileko Batzordera eramango dutela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza adierazteko Batzarrei zerbait eskatzen zaienean komenigarria izango litzatekeela erantzuteko epea jartzea, bestela guztia pixka bat lauso geratzen delako beti.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza galdetzeko jada 2005etik hasita dagoen gai bati buruz, Garavillan isurketa toxiko eta ilegalei buruzkoa. Galdetu du ea Gobernu-taldeari isurketa horiek ez dioten kezkatzen, eta galdetu du ea non dagoen arazoa.

Jarduneko alkate Iñigo Pinedo Vadillo jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Gentza Alamillo Udaeta jaunak jada behin baino gehiagotan adierazi duela espediente Eusko Jaurlaritzak izapidetzen duela, eta askotan errepikatu zaiela idatziz zein telefonoz. Teknikariak jarraipena egiten du, baina oraindik ez dute ezer erantzun.

Koldo Mendioroz Goldaraz Zinegotzi jaunak (EH BILDU) eskatu du taldeei gai horri buruz Eusko Jaurlaritzari bidalitako idazkia bidaltzeko.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du ez zaiola normala iruditzen 17 urte ondoren berdin jarraitzea, isurketa ilegal eta toxikoa izanda, kezkarria iruditzen zaio.

Jarduneko alkate Iñigo Pinedo Vadillo jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta adierazi du 17 urte horietan EH BILDU Gobernu-taldean egon zenean ere ez zela ezer egin.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza haiek ez zirela Gobernu-taldean egon; hala ere, gaineratu du, EH BILDU egon zenean legezkatzen saiatu zela eta EH BILDUK gelditu zuela.



Jarduneko alkate Iñigo Pinedo Vadillo jaunak (EAJ-PNV) adierazi du hori Eusko Jaurlaritzaren eskumena dela. Espedientea hasi zen, eta gaur arte hainbat alditan galdetu dugu.

Koldo Mendioroz Goldaroz zinegotzi jaunak (EH BILDU) hartu du hitza adierazteko gai horri dagokionez espero duela ez egotea gelditzeko beste asmo eta interesik.

Jarduneko alkate Iñigo Pinedo Vadillo jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza gaineratzeko haiek behin eta berriz ari direla Eusko Jaurlaritzari errepikatzen; idazkia batzorde batera eramango dutela, eta gainera, gaineratu du, udaleko teknikariarekin hitz egin daiteke.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza adierazteko Murgako istripua gertatu zenean monolitoa jartzea proposatu zela; ezetz esan zitzaion, gertatutakoa oroitzeke beste zerbait pentsatuko zela. Hiru urte igaro dira eta ez dago proposamenik.

Montse Angulo Solloa zinegotzi andreak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko haiek ere proposamena egin dezaketela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) erantzun du haiek jada monolitoa proposatu zutela eta esan zietela gaia aztertuko zela.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta gaineratu du proposamena mahai gainean dagoela, batzordera eramatearen zain daudela gaiari heltzeko.

Jarduneko alkate Iñigo Pinedo Vadillo jaunak (EAJ-PNV) adierazi du jada azaldu zela zergatik uste zuten monolitoarena ez zela ideia ona.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du hori izan zela argudioa, bai, baina gaiaren hausnarketa egingo zela adierazi zutela eta ez dela ezer egin horri buruz. Hainbat aldiz gaiari buruz galdetu da, eta oraindik ez dago inolako planteamendurik.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza berriro eta gogorarazi du denbora luzez eskatu diren gauza asko daudela egiteko, adibidez Mendilerroko Larreen Plana. Duela asko alegazioak egin ziren horri buruz eta ez da ezer berririk jakin. Beste adibide bat inmigrazioarako protokoloa da, ez dago ezer hori lantzeko, gaineratu du, eta jada urte bat igaro da horrekin hasi zirenetik.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) galdetu du ea Aldundiari idazkirik bidali zaion eukaliptoaren gaiari buruz.

Jarduneko alkate Iñigo Pinedo Vadillo jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez dakiela idazkirik bidali den.

**EGINBIDEA.-** 19:40 denean Susana Martín Benavides zinegotzi andrea osoko bilkuren aretoan sartu da.



Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza gaineratzeko eukaliptoarenean luzamendua eskatzen ari dela; gai garrantzitsua da, Aldundiari idazkia bidaltzeko modukoa, baina dirudi gauzak ez direla Gobernu-taldeak nahi dituenaren bezalakoak eta ez zaie behar duten garrantzia ematen. Aspaldi bilera bat egon zen, eukaliptoaren alternatibak azaltzeko, eta ez zen Gobernu-taldeko inor joan.

Jarduneko alkate Iñigo Pinedo Vadillo jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza erantzuteko luzapenaren gaia Aldundiaren esku dagoela, Udalak ezin du ezer egin. Kontua ez da interes falta dagoela, Udalaren eskumena ez dela baizik.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du egozten zaiena Aldundiari idatziz ez galdetzea dela, eta hori eginda Aldundiak erantzuten ez badu, argi dago hori ezin zaiola Udalarari aurpegiratu, ez delako bere eskumena.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du beste gauza batzuetan berandu gabiltzala, gogoraraziz Urbiden korrika sartu behar izan zela, denbora eskatu zen. Eraikinak garbitzeko zerbitzurako agiriaren kasuan ere denbora eskatu zen hobe aztertzeko eta onesteko eta ez zen eman. Duela bi urte mugikortasunerako azterlana egitea eskatu zen eta Gobernu-taldeak esan zuen ez zela Udalaren eskumena, Aldundiarena baizik, eta orain bapatean azaroan Batzorde batean azterlan hori egingo dela azaldu da, badirudi Aldundiak iritziz aldatu dela.

Jarduneko alkate Iñigo Pinedo Vadillo jaunak (EAJ-PNV) erantzun du azkenari dagokionez mugikortasunaren azterlana aipatu dela, orain izan da Aldundiaren jakinarazpena jaso denean, gai horietarako dirulaguntzak ematen dituela adieraziz, beraz, loturazko zerbait planteatu daiteke, edo beste edozein konponbide. Hau da, orain bete daitezke mugikortasunaren arazorako konponbideak, beraz mugikortasun-plan hori egin daiteke.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza berriro adierazteko duela hiru urte industrialderako txostena egitea eskatu zela, nahiz eta Aldundiaren dirulaguntzarik ez egon; gauza bera egin zitekeen mugikortasunaren azterlanarekin.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) Arespalditzan egiten ari den parkeari buruz galdetu du. Galdetu du ea nork eskatu duen, haiei heldu zaielako eskatu dena jada zeuden parkeak konpontzea dela.

Jarduneko alkate Iñigo Pinedo Vadillo jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Kuadrillaren eraikinaren ondoko parkeak ez dituela baldintzak betetzen eta kendu nahi dela. Bere garaian han egin zen, Udalak zuen partzela bakarra zelako. Eta Garabideren dirulaguntza aprobetxatuz, beste parke bat egingo da. Eta egiten ari den guztia lurzatiaren eta proiektuaren baldintzengatik egiten da, eta prest utziko da, gero estali ahal izateko. Eta hor egin da teknikariek leku hoberena dela esan dutelako.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza berriro galdetzeko ea harremanetan jarri diren beste alkateekin Renferekin hitz egiteko kendu zen goizeko ordu bietako trenari buruz.

Jarduneko alkate Iñigo Pinedo Vadillo jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez dakiela, galdetuko duela.



Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeiak eta bost minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita hiruko urtarilaren hemeretziaren.

O. E.

ALKATE-UDALBURUA,

Stua.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA,

Stua.: Naiara Lazpita Marcos.



**Aiarako Udala**  
Ayuntamiento de Ayala

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus